



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 1. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **LILI IZURDEA. Nahikari Matxin Gorraitz**

Bazen behin Lili izeneko izurde bat. Lilik begi urdinak zituen eta bera izurde arrosa zen. Donostian bizi zen amarekin eta bere ahizpa txiki batekin. Aitarik ez zuen marrazo batek jan zuelako.

Egun batean Lili kanpora joan zen gauzak ikustera. Bat-batean bere aitaxo jan egin zuen marrazoa ikusi zuen eta marrazoak esan zion:

—Nor zara? Jan nahi zaitut!!

Korrika ihes egin zuen. Ondoren, gauzak ikusi eta ikusi, bat-batean arrantzale bat agertu zen eta Lili harrapatu nahi zuen. Berriz korrika ihes egin zuen.

Azkenean lagunekin jolastera joan zen, eta kontatu zien itsasoan gertatutakoa. Lagunek ez joateko gehiago esan zioten.

